



AMAIA TXINTXURRETA

Ainhoa Larrañaga

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA ♦

Independentziarako pedagogia

MIRESMENEZ eta arreta handiz ari gara jarraitzen Euskal Herritik Kataluniako prozesua. Ez dakigu zer gertatuko den; ez dakigu erabakitze eskubidearen estrategia benetan den eraginkorra independentzia lortzeko eta ikustear dago, Kataluniak espainiar inperialismoa garaitzea lortuko duen ala ez. Seguruena asko dira Katalunian independentziaren aldeko prozesua hain aurrera joan izanaren arrazoiak edo gakoak. Euskal Herriko independentzia irrikaz bizi duen edozeinek, sarritan egingo du galdera hau: “Zer gertatu da Katalunian halako abiadura hartzeko?”. “Zer ez da gertatzen Euskal Herrian horren motel joateko?”. Irailaren 27rako hamasei egun falta zirela ospatu zen Diada eta bertan egoteko aukera izan dut. Katalunia ametsa gauatzeko unean dagoen herria dela esan daiteke eta gauza asko esan eta azpimarratu daitezkeen arren, bi kontu aipatu nahiko nituzke: herri-tarrek islatzen duten poza batetik eta egoera honetara iristeko egin den pedagogia, bestetik. Aurten, Via Lliurekoek lelo hauen modukoak bultzatu zituzten ekitaldi nagusian zehar: *“Via lliure: a la democràcia; al món; a la sostenibilitat; a la justícia social; a la diversitat; a la solidaritat; a la igualtat; a l'equilibri territorial; a la educació; a la cultura”*.

Katalunia eta Euskal Herria ez dira alderagarriak, baina euskaldunak otzandu gara. Independentziarako bidea piztu beharra dago eta horretarako ezinbestekoa da independentziarako pedagogia

Eta hori guztia independentziaren bidez. Modu sinple eta argian independentziak dakartzan onurak azaltzen dituzte esaldiok. Modu grafikoan adierazten dute, Kataluniari —eta edozein estatutik gabeko nazio-ri— euren burua gobernatzeak dakartzkion onurak.

Hedabide publikoek zein pribatuek eta beste hainbat eragilek independentziaren aldeko jarrera esplizitu edo inplizitua adierazten dute euren jardunetan. Europara bidali duten ordezkariak esana du, Europak Katalunia estatu gisa onartuko duela, baldin eta herritarren gehiengoak baiezkoa ematen badu; eta, hori ere, modu argian komunikatu dute.

Katalanek gurera begiratu izan dute sarritan eta orain gu gara begirada Kataluniatik kendu ezinik gabiltzanak. Ez, ezin dira bi herrialdeak alderatu; ez dira alderagarriak. Baina, otzandu gara euskaldunak. Independentziarako bidea piztu beharra dago eta horretarako ezinbestekoa da

independentziarako pedagogia. Bi argudio ildo sendotan oinarrituz: argudio historikoa batetik eta guk geuk determinatzeko boterea izateak dakarren abantaila bestetik. Euskal Herriak independentzia behar du bizi irauteko. Eufemismoak albo batera laga behar dira eta lotsarik gabe pedagogiari ekin. ■

JOSU SANTESTEBAN



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Seigarren urteko talaiatik...

ARI NAIZ: sei urte daramatzat eskolak ematen unibertsitateko Lehen Mailako lehen lauhilekoan, karreraren hasi-hasieran, Haur Hezkuntzako Graduan Gasteizko Irakasle Eskolan. Oso une berezia da bigarren hezkuntzatik datozen ikasleentzat, hau da, haietako gehienentzat, unibertsitatean sartzeak, era globalean adierazteko, aldaketa kultural handia baitakar. Hori dela-eta, ikasleak esparru berrira hobeki egokitze laguntza espezifikoa ematen saiatzen gara, haien iguripenak arakatuz bidenabar.

Talaia polita da ikusteko gazteak, urdu-

ritasunak urduritasun, ilusioz beteak etortzen direla urtero Hegoaldeko lau herrialdeetatik. Nolanahi ere, beste paisaia batzuk ere ikusteko balio du talaia honek. Esaterako, ahozko euskara batuak ez duela ospe onik ikasle euskalkidunen artean: herriko hizkera alboratu gabe, graduan zehar ahoz eta estandarrean ere gaitasuna agertu beharko dutela iragartzean, batuaren pedagogia egin beharra suertatu izan zait azken sei urteotan.

Hauxe da galdera talaiatik, lagunok: zergatik ekartzen dute gazteek ahozko batuaren kontrako jarrera? ■